

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak eta Eskualdeen Batzordeak Brexitari buruzko informazioa partekatuko dute

Eskualdeen Batzordearen ordezkariak batek Foru Komunitatea bisitatu du esportazioetarako laugarren merkatua EBetik irteteak Nafarroari eragingo dion inpaktua aztertzeaz arduratzen den Brexitaren Behatokia ezagutzeko

Astelehena, 2019.eko urtarrilak 14

Eskualdeen Batzordearen ordezkariak batek Nafarroa bisitatu du gaur, Nafarroako Gobernuak, Britainia Handia Europar Batasunetik irteteak Foru Komunitateko ekonomiari ekarriko dion eragina aztertzeko abiarazi zuen Brexitaren Behatokia bertatik bertara ezagutzeko xedez. Belgika, Irlanda, Erresuma Batua, Errumania eta Poloniako 9 ordezkari osatutako



Ollo kontseilaria eta Bruselako ordezkari Mikel Irujo, Tronua Aretoan, Eskualdeen Batzordearen ordezkariarekin batera.

taldearekin batera izan da une oro Nafarroako Gobernuaren Bruselako ordezkari Mikel Irujo, eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilaria Ana Ollok egin die harrera Nafarroako Jauregian.

Bisitaldian, kontseilariak Brexitaren prozesuak Nafarroarentzat duen garrantzia nabarmendu du. "Erresuma Batua da gure Komunitatearen laugarren bazkide komertzialik garrantzitsuena, eta ondorioz, begibistakoa garrantzia du guretzat Europar Batasunetik irteteko negoziazioen bilakaera ezagutzea, baita irteerak nafar ekonomian izango dituen ondorioak ere".

Bisitaren ondoren, taldea Nafarroako Brexitaren Behatokiaren arduradunekin bildu dira, eta topaketa horretan, Eskualdeen Batzordearen informazio-iturriak partekatu eta bideratzea adostu dute, Nafarroari dagozkion gaietan. Gainera, Irlanda, Belgika, Estonia eta Poloniako zenbait eskualdetan enpresei nahiz herritarrei zuzendutako informazio-fluxuetan gauzaturiko lan-esperientzia zehatzei buruzko informazioa trukatzeko aukera izan dute.

Brexitaren inpaktua Nafarroan

Erresuma Batua da Nafarroako 2017-2020ko Nazioarteko Planean hautaturiko merkatu estrategikoetako bat, eta lan handia egin da bertan azken hilabeteotan. Zehazkiago esanda, lehentasunezko merkatutzat hautatu da nekazaritzako elikagaigintzarako, automobilgintzarako, energia

berriztagarrietarako, osasunerako eta sormen-industrietarako.

Esportazioak. 2017an, salmentetan, Erresuma Batua laugarren merkatua izan zen Nafarroako esportazioetarako. Aurtengo urte hasieraz geroztik, seigarren postura jaitsi da, Estatu Batuen eta Portugalen atzetik (azken datu erabilgarriak 2018ko abuztukoak dira). Guztira, 2013-2018 epealdian, Erresuma Batuak Nafarroako esportazioen % 6 eta 8 bitartean jaso du.

2017an, esportazioak 558,1 milioi eurokoak izan ziren. Kopuru hau aurreko urteetako baino txikiagoa da eta litekeena da aurten gehiago jaitea, izan ere, 2018ko abuztura arte, 282,3 milioi euroko salmentak egin ziren, iazko epealdi berean baina % 31,4 gutxiago.

Hala ere, zaila da esportazioetan izandako jaitziera hau Brexitari egozte, kontuan hartu beharreko beste faktore batzuk baitaude.

Inportazioak. 2017an, inportazioak 106,18 milioi eurokoak izan ziren, Nafarroaren mesedeko balantza komertziala osatuz. Garrantzitsua da automobilgintza bezalako sektoreetarako inportazioen pisua kontuan hartzea, Erresuma Batuarekiko erosketak eta salmenten fluxu bikoitza dakarren heinean.

Enpresa esportatzaileak. Iaz, Nafarroako 274 enpresak ondasunak esportatu zituzten Erresuma Batura, eta kopuru hau bere horretan mantendu da azken urteotan. Nabarmendu behar da enpresa hauen % 70 (192) esportatzaile erregularrak direla (esportazioak, gutxienez, ondoz ondoko lau urtetan egin dituzte). Horren arabera, nolabaiteko kontsolidazioa antzematen ahal da merkatu horretan diharduten enpresen artean, bereziki kontuan harturik Nafarroan dauden enpresa esportatzaile guztien artean % 34 baizik ez dela esportatzaile erregularra.

Brexitaren eraginpeko sektore nagusiak. Elikagaigintzari eta automobilgintzari dagokie Nafarroak Erresuma Batura egindako esportazioen ia % 70 (zehazkiago esanda, % 69,05). Elikagaingintza da Erresuma Baturako nafar esportazioetan pisurik handiena duen sektorea, izan ere, 2017an, esportazio guztien % 37 bildu zuen. Erresuma Batura egindako esportazioen % 20 automobilgintzari dagokio (horregatik, sail honetan gerta daitezkeen edozein aldaketa garrantzi handikoa da estatistiketan) eta % 10 osagaiei. Gainerako kopuruaren laurden bat baino gehixeago (% 27,73) ekipo ondasunak eta manufakturak dira. Kontzentrazio handia hautematen ahal da jarduera-adar gutxi batzuen inguruan, eta horrek Erresuma Batuarekiko merkataritzaren baldintzetan Brexitaren ondorioz gerta daitezkeen aldaketen eragina areagotzen du.